

Hiztegietaiko umezurtzak

K

ANIBALISMOA ote?" galdetzen zuen *Courrier International* astekariko kazetariak, giza geneak txertatu zaizkion arroz bati buruzkoak azaltzen ari zela. Izan ere, nola deitu behar ote zaio haur jaioberrien zirin larria sendatzeko erabiliko omen den konposatu transgeniko horri? Besterik gabe, botikatzat hartuko ote da? *Basmati* moduko izenik ipiniko ote zaio zakutxotan edo zereal barraren itxuran plazaratzen bada? Ez da erraza gaiak harrotzen dituen hauts guztiak hitz baka- rrean biltzea.

Joachim Sauer jauna ez da "gizarro- za". Kimika kuantikoan aditua, Berlingo Humboldt Unibertsitateko irakasle kate- draduna, ikerkuntza molekularrean mun- duko hogeita hamar onenen artean aur- kituko dugun zientzilaria da bizibideari dagokionez, baina bioteknologiak ukitu- tako produktuek bezalatsu uzten ditu berri-emaleak: inork ez daki nola deitu, harekiko tratuan nola asmatu. Bereziki haren emazte Angela Merkel –fisikan doktorea eta iker- kuntza molekularrean ari- tua hau ere– Alemaniako kantziler bilakatu zelarik, Lehen Damari dagozkion zereginak gogoz ala gogoz kontra gehitu zitzaizkionez geroztik.

Sozialdemokratek eta demokristauek osatzen duten koalizioa zuzentzen duenaren "bibotea" gustuko ez dutenek, esate baterako, Herr Merkel deitu izan diote ironiaz. Ironiaren ironiaz, hobeto esan, hain baita iro- nikoia norberaren abizena ezkontidearen abizenaren mesedetan galtzea, Pirinioe- tatik beherako lurraldeetan ez beste, prak- tika arrunta eta hainbat kasutan ia kuestio- naezina izanagatik ere. Edo ironiaren ironiaren ironiaz, benetan zehatzak izan- da. Angela Dorotea Kasner-en lehen senarraren abizena baita Merkel.

Batere txarra ez, seguruenik, Cherie Blair edo Hillary Clinton bezalako ema-



DANI BLANCO

kume karreradunen iritzia ezagutzerik balego.

"Operako mamua" ere izan da gizona. Batik bat G8ko goi-bileran estatu-buru boteretsuenen emazteak entretentzeko lanak hartu aurretik. Ordura arte, haren emaztea Alemaniako historiako lehen emakumezko kantziler izendatu zuten egunean ere ez zuelako azaldu nahi izan eta urteko agerraldi publiko bakarra Bavierako Wagner Opera Jaialdiko inaugu- razioan egiten zuelako datorkio goitizen literario hori.

Oraintsu, politikarien arteko ezkontide sonatuenaren rola zertxobait jokatzan hasi denetik, hiztegi lodikote bat baino gehiago astindu da hedabideetan nahiz politikari eta diplomatikoen bulegoetan "lehen dama" delakoaren pareko adiera maskuli- noaren bila. Izango ote da berbarik "hala- koren senarraren" arrunkeria gaintitzea-

rekin batera ohekide izate hutsari ardura politiko kutsua emango dionik? Jaki- na, goitizen irrigarrietara jotzeak ez du balio.

ZAILA, halaber, *Egunkaria* aferako zazpi auzipetuei gertatzen ari zaiena biribil- duko duen hitza aurkitzea. Zer-nolako barne-senak bultzatzen ote ditu *Digni- dad y Justicia* eta AVT elkar- teak edota ahozko epaiketa egiteko erabakia hartu duten hiru magistratuak ez punta eta ez ipurdian dau- kan fartsa neurririk gabe luzatzera?

Pasatakoak pasata, iren- tsitakoak irentsita, zer ote da aiherkundetik eta gorro- totik harago sentitzen dena

Euskal Kulturako zazpi biktima ezagu- nenak –Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Martxelo Otamendi, Pello Zubi- ria, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Xabier Alegria– prozesu hutsal, mingarri eta infinitu batera kateatu behar izateko...

Kanibalismoa ote? ■

Pasatakoak pasata, irentsitakoak

irentsita, zer ote da aiherkundetik

eta gorrototik harago sentitzen dena

Euskal Kulturako zazpi biktima

ezagunenak prozesu hutsal,

mingarri eta infinitu batera

kateatu behar izateko...

Kanibalismoa ote?